

Mikel Etxeberria

• OTSEIN ETXETRESNA ELEKTRIKOEN MARKETIN BURUA •

Etxetresna elektrikoek etiketa energetikoak beharko dituzte»

■ Bergarako Otsein fabrikak 57 urte daramazki etxetresna elektrikoak ekoizten. ■ Egun Grupo Candyko kide da. ■ Fabrika ikuzkailuen ekoizpenean berezitua da, eta urtero 400.000 produktu ekoizten ditu. ■

Otsein-eko marketin-burua den Mikel Etxeberria azaldu du, egun, etxetresna elektrikoek ekoizpenean ingurugiroak duen garrantzia eta merkatuko kontzeptu berriak, hala nola, puntu berdea eta etiketa energetikoa

■ Egun, produktuen publizitatea egiterakoan ingurugiroarekin lotutako kontzeptu ugari ageri dira, produktu ekologikoak saltzen dira. Ez da hala?

Gero eta gehiago, gainera, orain artean saltzeko, eduki teknikoak erabiltzen ziren. Egun, ordea, Europa aldean gertatzen ari den kontzientziazioa apurka hemen sartzen ari da, batez ere Alemanian eta iparraldeko herrietan ematen ari dena; hau da, baliabideen kontsumoan eragiten duten ezaugarriak kontuan hartzen ari gara, uraren kontsumoa edota elektrizitatearena.

Ontzi-garbigailuen kasuan esaterako jendeak uste du gehiegi kontsumitzen dutela, seta ez da hala. Askotan eskuz koilaratxo bat garbitzen askoz ur gehiago gastatzen dugu, ontzi-garbigailuak kontsumitu dezakena- ren aldean.

■ Publizitatean ingurugiroarekin lotutako leloak eta azalpenak erabiltzeak badu eraginik jendearen jarreran?

Kasu batzuetan bai, baina ez Alemanian-eta bezainbeste. Hemen beti bezala jende gehienarengana beranduago heltzen da.



GARI GARAIALDE

Espainiako Estatuan, adibide ikuzkailuekin gertatzen dena da adibide garbi bat: jendeak ur eta xaboi kantitatea garbitzeko ahalmenarekin lotzen du. Ur eta xaboi gehiago garbiago alegia.

■ Elektrogailuen artean, energia gutxiago kontsumitzen dutenak aukeratzeari ahal da merkatuan? Bai. Gure kasuan ontzi-

garbigailuen artean badugu eredu bat :Eko-bio.

Erabiltzen ditu garbikari berriak, xaboi pastillak erabiltzen ditu, zikinkeria hobeto kentzen dutenak. Ohiko garbigailuek baino ur gutxiago kontsumitzen du, ez baitu aurre-garbitzea egiten, eta energia aurrezten du, 55 gradutan 65 gradutako garbitasun maila ematen baitu, eta

gainera oso zarata gutxi egiten du.

Ordea, energia gutxiago gastatzeko teknologia duten elektrogailuak garestiagoak izaten dira, beti ere teknologia hobeagoa izaten baitute.

■ Eta nola bereiztu dezakegu gailu bakoitzaren ahalmena?

Europako legediak agindu bezala, jada zenbait tresna

Legedia

«Europako Batasunak agindu legez zenbait gailu etiketa energetikoarekin merkaturatzen ari dira»

etiketa energetikoekin merkaturatzen ari dira jada; duten energia eraginkortasuna azaltzen da hor. A hizkitik hasi eta E eta F hizki arteko mailak daude. Etiketa energetikoan A hizkia dutenak dira maila onena dutenak. Maila hoberenekoak egun gutxi daude merkatuan, baina B-C mailakoak errez aurkitu ditzakegu eta ez dira horren garestiak.

■ Zer da puntu berdea, nola funtzionatzen du?

Puntu berdea enbalajeetan izaten da. Puntu berdea lortzeko, akordio bat sinatu behar da enpresa batekin, gure kasuan Ecoembesekin, enpresa horri diru kopuru bat ordaintzen zaio, enbalajearen erabiltzen diren materiale guztiak birzikla ditzan.

■ Etxetresna elektrikoak gerora birziklatuak izateko erabakitzen al dira?

Produktua ostazen duten materialek marka bat dute, marka horrek dagokion hondakin motarekin birziklatu daitekeela esan nahi du; esaterako plastikoak, plastikoa- rekin birziklatu izateko ikurra dauka. Bakoitzak bere ikurra.

Baina ekologia ez dugu makinaren eta produktuen aldetik bakarrik zaintzen. Baita hondakin eta ur tratamenduak ere. Arauak ondo betetzen ditugu.

■ Zarata kontuan edukitzen al da elektrogailuak ekoizterakoan?

Bai, noski. Orain arte ontzi-garbigailuetan bakarrik hartzen zen kontuan. Duela 10 urte zarata ikaragarria ateratzen zuten, eta arlo horretan aurrera egin da, hobetu egin da. Otseinen ontzi-garbigailuak oso isilak dira, eta horretan ahalegin bat egiten ari gara, zarata gutxitzeko.

Ikuzkailuetan kasuan ere egun zaratak badu bere garrantzia. Adibidez, hotel- tarako hozkailu txikiak, konpresore isila behar izaten dute, hotel-eko logeletan izaten baitira gehienetan.

MUNITIBAR, AULESTI - GIZABURUAGA
AMOROTO - MENDEXA

**LEA IBARREKO
MANKOMUNAZGOA**



INGURUGIROAREN ALDE

Ellexalde, 1 - Tel.: 94 684 29 82 - GIZABURUAGA (Bizkaia)



**AYSPACK
SIMOP**

**HONDAKIN-URAK ARAZTEKO PLANTA
HIDROKARBURUEN BEREIZGAILUAK**

San Juan, 29 behea - 48140 IGORRE
Tel.: 94 673 70 08 - 94 631 55 86